GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE, (2) PP.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 17 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE, (2) PP.

ABSTENCIONES: 0.

11. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako hiri berroneratze integralerako proiektua zabaltzeari buruzkoa.

11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la ampliación del proyecto de regeneración urbana integral de Altza.

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Altzako hiri berroneratze integralerako proiektua zabaltzea proposatzeko.

“La portavoz del grupo municipal EH BILDU, Reyes Carrere Zabala, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA para proponer la ampliación del proyecto de regeneración urbana integral en Altza.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko azaroan, Altzako hiri berroneratze integralerako proiektua aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren sailburuordeak eta Donostiako Udaleko Alkateak. Plan horren bidez, berroneratzeko jarduketak egingo dira, bai bizitegi eraikinetan, bai azpiegituran, berrurbanizazioan eta kutsatutako lursailak lehengoratzean, eta, horretarako, hiri-eremua, berdeguneak eta irisgarritasuna hobetuko dira. “gune kalteberenetan” egingo da: Arriagan, Errotetan, Casaresen (?) eta Santa Barbaran. Gerora jakin dugu Txirrita kaleko etxeren bat eta Elizasu auzoa ere sartu dituztela proiektuan.

Ekialdeko Barrutiak eskatuta, 2023ko martxoaren 29an, Donostiako Udaleko Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotziak agerraldia egin zuen proiektua azaltzeko Hirigintzako lantaldean. Barrutiko elkarteek eskatu zioten argitzeko zer irizpide erabili diren proiektu honen onuradun izango diren auzoak hautatzeko. EH Bildu, bere aldetik, gogorarazi zuen Eusko Jaurlaritzak 2020an argitaratu zuela “ACTUALIZACIÓN DEL MODELO DE IDENTIFICACIÓN Y GEOTIPOLOGIZACIÓN DE ÁREAS URBANAS VULNERABLES DE LA CAPV” (gaztelania hutsez dago) izeneko txostena, eta, horren arabera, Ekialde Barruti osoa ageri dela hirigintzaren aldetik zaugarrien dauden Gipuzkoako hiri eremuen artean: Altza da zaugarritasun oso handia duen Gipuzkoako

JUSTIFICACIÓN

En noviembre de 2022, el viceconsejero de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco y el alcalde del Ayuntamiento de San Sebastián presentaron el proyecto de regeneración urbana integral de Altza. Mediante este Plan se llevarán a cabo actuaciones de regeneración, tanto de las edificaciones residenciales como de la infraestructura, reurbanización y recuperación de terrenos contaminados, mejorando el entorno urbano, las zonas verdes y la accesibilidad, en las zonas «más vulnerables»: concretamente en Arriaga, Molinos, Casares (?) y Santa Bárbara. Posteriormente hemos tenido conocimiento de que alguna casa de la calle Txirrita y el barrio de Elizasu también han sido incluidos en el proyecto.

A petición del Distrito Este, con fecha 29 de marzo de 2023, la concejala de Desarrollo Económico y Empleo del Ayuntamiento de San Sebastián compareció en el Grupo de Trabajo de Urbanismo para dar cuenta del proyecto. Las asociaciones del distrito solicitaron que se aclarasen los criterios utilizados para la selección de los barrios beneficiarios de este proyecto. EH Bildu, por su parte, recordó que en 2020 el Gobierno Vasco publicó el informe titulado "ACTUALIZACIÓN DEL MODELO DE IDENTIFICACIÓN Y GEOTIPOLOGIZACIÓN DE ÁREAS URBANAS VULNERABLES DE LA CAPV", según el cual todo el Distrito Este figura entre las áreas urbanas urbanísticamente más vulnerables de Gipuzkoa: Altza es la única zona de Gipuzkoa con una vulnerabilidad muy alta y Bidebieta e Intxaurren

eremu bakarra, eta Bidebietak eta Intxaurrendok zaurgarritasun egoera ertaina-altua dute. Nabarmendu genuen txosten horrek ez duela zehaztapen geografiko handiagorik eskaintzen.

Horregatik, proiektua begi onez ikusten dugun arren, Barrutiko bileran adierazi genuen tamala zela ez sustatu izana Ekialde Barrutiko batzarraren lankidetzaz Altzako hiri berroneratze integralerako proiektuan, baita bileran bertan ordezkatuta zeuden zenbait auzo proiektutik kanpo geratu izana ere, begi bistakoa baita zaurgarritasun egoera larriak dituztela. Hain zuzen ere horregatik, agintaldi hasieratik, EH Bilduk egoera horiek zuzentzeko proposamenak egin ditu, eta horren adibide dira: Intxaurrendoko Irurak auzunea, Eskalantegi-Berra-Darieta-Molinako eremua, Herrera auzoko San Antonio kalea eta Harrobi etxartea (San Inazio galtzara), Bidebietako Juan Carlos Guerra-Azkuene eremua... Gainera, nabarmentzekoa da Udal Gobernuak onartu egin zuela 2020ko aurrekontu proiektuari EH Bilduk egindako zuzenketa bat, hirigintza plan berezi bat egiteko Oleta-Pikabea auzoan, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko (lehen zirriborro bat egin eta eztabaidatua dago 2022ko otsailetik). 2021eko uztailen ere, galdetu genion Udal Gobernuari zer asmo zuen Altzako hirigintza zaurgarritasun egoera arintzeko, baina ez zuen aditzera eman hiri berroneratze integralerako proiekturik eskuartean zuenik; are, HAPOa berritzeko unerako utzi zuen.

Gainera, etxejabeen komunitateek oso epe laburra izango dute Altzako hiri berroneratze integralerako proiektuan parte hartu nahi duten adierazteko, maiatza izango baita epemuga.

Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

presentan una vulnerabilidad media-alta. Destacábamos que este informe no ofrece mayor concreción geográfica.

Por ello, aunque veamos el proyecto con buenos ojos, en la reunión del Distrito Este dijimos que era una pena no haber promovido la colaboración de la Junta de Distrito Este en el proyecto de regeneración urbana integral de Altza, así como haber excluido del proyecto varios barrios representados en la propia reunión, ya que es evidente que presentan graves situaciones de vulnerabilidad. Precisamente por ello, desde el inicio del mandato, EH Bildu ha realizado propuestas para corregir estas situaciones, como por ejemplo: Vecindario Irurak de Intxaurrendoko, la zona de Eskalantegi-Berra-Darieta-Molinako, calle San Antonio del barrio de Herrera y el grupo de casas de Harrobi (calzada San Ignacio), zona de Juan Carlos Guerra-Azkuene de Bidebieta... Además, cabe destacar que el Gobierno Municipal aprobó una enmienda de EH Bildu al proyecto de presupuesto 2020 para la elaboración de un plan urbanístico especial en el barrio de Oleta-Pikabea para la mejora de la accesibilidad y la seguridad (primer borrador elaborado y debatido desde febrero de 2022). En julio de 2021 también se preguntó al Gobierno Municipal por su intención de paliar la situación de vulnerabilidad urbanística de Altza, pero no manifestó que tuviera un proyecto de regeneración urbana integral, incluso lo dejó para el momento de la renovación del PGOU.

Además, las comunidades de vecinos dispondrán de un plazo muy breve para manifestar su voluntad de participar en el proyecto de regeneración urbana integral de Altza, cuya fecha límite será el mes de mayo.

Es por ello por lo que el grupo municipal EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda sailari azter dezala Altzako hiri berroneratze integralerako proiektua Altzako beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera, proiektuan parte hartzeko interesa adierazteko ezarri diren epeak luzatuta, edota beste deialdi bat eginda, eta Ekialdeko Barrutiaren lankidetzaz sustatuta.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda sailari proposa dezala, bigarren fase batean, Ekialde Barrutia osorik hartuko duen hiri berroneratze integralerako proiektu bat, eta, horretarako ere, Ekialdeko Barrutiko batzarraren lankidetzaz susta dezala.

Donostian, 2023ko apirilaren 5ean.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea”.

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.^a Marta Huarte Paño y D.^a Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2)

PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco a que estudie la posibilidad de extender el proyecto de regeneración urbana integral de Altza a otros ámbitos de Altza, ampliando los plazos establecidos para manifestar su interés en participar en el proyecto, o realizando una nueva convocatoria, y promoviendo la colaboración del Distrito Este.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco a que, en una segunda fase, proponga un proyecto de regeneración urbana integral que abarque la totalidad del Distrito Este, promoviendo también la colaboración de la Junta de Distrito Este.

San Sebastián, a 5 de abril de 2023

Reyes Carrere Zabala
portavoz del grupo municipal EH Bildu”.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP,

(3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

11 BIS. Mozio arrunta, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, Donostiako alokairuaren merkatuko prezio altuek tentsionatutako eremuen definizioari buruzkoa eta Estatuko etxebizitza legeak ezartzen dituen mugak gauzatzekoa.

“EH BILDU udal-taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak eta ELKARREKIN DONOSTIA udal-taldeko bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, PREMIAZKO MOZIO ARRUNT hau aurkeztu dute UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO, Donostiako alokairuaren merkatuko prezio altuek tentsionatutako eremuen definizioari buruzkoa eta Estatuko etxebizitza legeak ezartzen dituen mugak gauzatzeari buruzkoa.

PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

Donostia bizitoki-larrialdi egoeran dago, eta alokairuaren batez besteko errenta 1.000 euro ingurukoa da. Gainera, Donostian etxebizitza bat erostea Gipuzkoako gainerako udalerrietan halako bat erostea baino bi aldiz garestiagoa da: etxebizitza berri baten batez besteko prezioa 575.791 eurokoa da, eta bigarren eskukoa bada, 455.275 eurokoa. Egoera horren ondorio larrienetako bat da 2010 eta 2020 artean 3.375 donostiar gazte joan behar izan direla bizitzera Oiartzualdeko eta Buruntzaldeko udalerrietara. Donostian premiazkoa da bizitoki-larrialdia konpontzea, eta ildo horretan, etxebizitzaren lege berriak tresna berriak eskaintzen ditu. Lege honetako neurri nagusiek eragina izango dute komunitateek edo udalek «tentsionatutaz» jotzen dituzten eremuetan. Hau da, toki-administrazioak ekimena hartu behar du, eta

11 BIS. Moción ordinaria, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, sobre la definición de zonas tensionadas por los elevados precios del mercado del alquiler en Donostia y para materializar las limitaciones en los mismos que establezca la Ley de Vivienda estatal.

“La portavoz del grupo municipal de EH BILDU, Reyes Carrere Zabala, y del grupo municipal ELKARREKIN DONOSTIA, Aitzole Araneta Zinkunegi, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico de la Corporación, presentan la siguiente MOCIÓN ORDINARIA URGENTE PARA SU DEBATE EN EL PLENO, en relación a la definición de zonas tensionadas por los elevados precios del mercado del alquiler en Donostia y para materializar las limitaciones en los mismos que establezca la ley de vivienda estatal.

JUSTIFICACIÓN DE LA URGENCIA

Donostia se encuentra en una situación de emergencia habitacional, con una renta media del alquiler de 1.000 euros aprox.. Además, comprar una vivienda en Donostia cuesta ya hacerlo el doble que hacerlo en el resto de Gipuzkoa: el precio medio de un piso nuevo asciende ya a 575.791 euros y a 455.275 euros si es usado. Una de las consecuencias más graves de esta situación es que entre 2010 y 2020, 3.375 jóvenes donostiarras se han tenido que mudar a los pueblos de Oiartzualdea y Buruntzaldea. Donostia urge soluciones a la emergencia habitacional y la nueva ley de vivienda ofrece nuevas herramientas en este sentido. Las principales medidas de esta ley afectarán a las zonas que las comunidades o ayuntamientos declaren como “tensionadas”. Es decir, la administración local tiene que tomar la iniciativa, y en el caso de Donostia, de forma urgente. Este es el motivo de la propuesta que

Donostiaren kasuan, premiaz. Horregatik egiten dugu proposamen hau.

hacemos.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Legealdi honetan, ALOKAIRU-BENTA BERRI, STOP DESAHUCIOS DE DONOSTIALDEA eta INQUILINOS AZORA plataformek udal-taldeei azaldu diete gure hiriko alokairuaren gehiegizko prezioak arautzeko premia; izan ere, horren ondorioz, ezinezkoa da soldata ertain eta apalak dituzten donostiarrek, bereziki gazteek eta seme-alaba adingabeak dituzten bikoteek etxebizitza duina eta eskuragarria eskuratzea alokairuko erregimenean.

Durante esta legislatura las plataformas de ALOKAIRU-BENTA BERRI, STOP DESAHUCIOS DE DONOSTIALDEA e INQUILINOS AZORA han venido exponiendo a los grupos municipales la necesidad de regular los abusivos precios del alquiler en nuestra ciudad que hacen imposible el acceso a una vivienda digna en alquiler y asequible para muchas/os donostiarras con rentas medias y bajas, en especial jóvenes y parejas con hijos menores.

Estatuko hirugarren hiri garestiena da Donostia, eta 16,5 euroko metro koadroko prezioa du –EAEko hiru hiriburuetakoa altuena–. Horrek inbertsio funtsak erakarri ditu hirira, hala nola BLACKSTONE –2018az geroztik SOCIMIn bazkide nagusia da, Benta Berriren BOE etxebizitzaren jabea–, edo AZORA, 2020ko urtarrilean Inmobiliaria Vascongada enpresaren etxebizitzak erosi zituen.

Donostia es la tercera ciudad más cara del estado, y tiene el precio de metro cuadrado en 16,5 euros -el más elevado de las tres capitales de la CAV-, lo que ha supuesto una atracción para el aterrizaje de fondos de inversión como BLACKSTONE -quien desde 2018 es el socio mayoritario de la SOCIMI, propietaria de las viviendas de VPO de Benta Berri- o AZORA que adquirió en enero de 2020 las viviendas de Inmobiliaria Vascongada.

Bizitegi-larrialdiko egoera horren ondorioz, ETXEGINTZAKO zerrendetan gero eta izenemate gehiago daude alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko. Horrelako etxebizitzaren zuzkidurak ezin dio erantzun alokairuaren gehiegizko prezioak ordaindu ezin dituzten eta hipoteka-mailegu bat eskuratu ezin duten herritarren eskariari, batetik, eta, bestetik, azken urteetan, alokairuak ez ordaintzeagatik etxegabetze-demandak areagotzen ari dira.

Esta situación de emergencia habitacional ocasiona el aumento de inscritos-as en las listas de ETXEGINTZA, para acceder a una vivienda de alquiler social, cuya dotación no puede atender la demanda de ciudadanos-as que no pueden pagar los abusivos precios del alquiler ni tampoco acceder a un préstamo hipotecario, por un lado, y, por otro, que en los últimos años estén aumentando las demandas de desahucio por impago de alquileres.

Legegintzaldian zehar, hiru plataformek behin eta berriz eskatu dute alokairuaren prezioei mugak ezartzeko, eta Alkateak adierazi du ezinezkoa dela, ez baitago hori ahalbidetzen duen estatu-araudirik.

Ante las reiteradas peticiones expuestas por las tres plataformas durante la legislatura relativas a la necesidad de establecer límites a los desbocados precios del alquiler, la Alcaldía ha manifestado su inviabilidad al no existir una

Estatuko Etxebizitza Legeak lege-esparrua ezartzen du udal honek eta erakunde autonomikoek Etxebizitzaren Euskal Legearekin osatzen den lege hori aplikatu dezaten.

Horregatik guztiatik, EH Bildu eta Elkarrekin Donostia udal-taldeek aurkezten dute honako

MOZIO ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Udalak alde aurretik hala eskatuta, Etxebizitza buruzko Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten eremu guztiak etxebizitza-eremu tentsionatutzat jotzeko, lege hori indarrean jarri bezain laster, Donostian alokairuaren prezioak kontrolatzeko sistema bat lehenbailehen ezarri ahal izateko.

Donostia, a 28 de abril de 2023

Izpta.: Reyes Carrere Zabala
EH Bilduko bozeramailea

Aitzole Araneta Zinkunegi
Elkarrekin Donostiako bozeramailea”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

normativa estatal que lo permita.

La Ley de Vivienda estatal viene a establecer el marco legal para que este Ayuntamiento y las instituciones autonómicas apliquen dicha Ley que se complementa con Ley Vasca de Vivienda.

Por todo ello, los grupos municipales de EH Bildu y Elkarrekin Donostia presentan la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Vasco a que, previa solicitud de este ayuntamiento, declare como zonas tensionadas de vivienda todas aquellas zonas que cumplan los requisitos establecidos al respecto en la citada Ley de Vivienda, tan pronto como entre en vigor la misma, con el objetivo de establecer cuanto antes un sistema de control de precios del alquiler en Donostia.

Donostia, a 28 de abril de 2023

Fdo.: Reyes Carrere Zabaña
Portavoz de EH BILDU

Fdo.: Aitzole Araneta Zinkunegi
Portavoz de ELKARREKIN DONOSTIA”.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 24 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 2 – PP.
ABSTENTZIOAK:0.

APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 24 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 2 – PP.
ABSTENCIONES: 0.

II.2
KONTROL MOZIOAK

II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Udalak hitzartutako etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzuari buruz.

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko apirilaren 24an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko iraileko udalbatzarrean, etxe-eremuan kalitatezko zaintza lanak bermatzearen inguruko kontrol mozioa aurkeztu genuen. Kontrol mozio horretan etxeko langileen errealitatea mahai gainean jartzen saiatu ginen eta proposatutako bigarren puntua onartu zen. Hau da, Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hirian etxeko zaintzaileekin lan egiten duten elkarte eta eragileekin harremanetan jar dadila, zaintzaileek pairatzen dituzten egoera prekarioen eta kezken inguruko informazioa jasotzeko.

II.2
MOCIONES DE CONTROL

II.2.1. Moción de control, presentada por el grupo EH BILDU, sobre el servicio de asesoramiento a las empleadas de hogar concertado por el Ayuntamiento de Donostia.

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas, el 24 de abril de 2023.

JUSTIFICACIÓN

En el Pleno Municipal de septiembre de 2022, presentamos una moción de control dirigida a garantizar la calidad de las tareas de cuidado en el ámbito doméstico. En dicha moción, intentamos poner sobre la mesa la realidad de las empleadas del hogar. El segundo punto de la moción propuesta por nuestro grupo fue aprobado. Decía así: El Pleno insta al Gobierno Municipal a ponerse en contacto con las asociaciones y agentes que trabajan con las personas cuidadoras domésticas de Donostia / San Sebastián para recopilar información sobre

Izan ere, azkenaldian asko hitz egiten ari da zaintza eredu berri baten beharraz eremu politiko-instituzionalean; gutxiago, ordea, etxeetan zaintzaileek jasaten duten lan-prekarizazioa amaitzeko neurriez.

Hain zuzen ere, Mendekotasunaren atentziorako eta autonomiaren promoziorako 39/2006 Legeak zaintzaile profesionalak kontratatzeko dirulaguntzak arautzen ditu, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa delakoaren bidez (hemendik aurrera LPPE). Izan ere, LPPEaren bidez, mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da erakunde publikoetatik. Hau da, LPPE baten bidez zaintzarako pertsona bat kontratatzeak dituen gastuak (nomina, kotizazioa eta abar) ordaintzen laguntzen du administrazio publikoak.

Zenbatekoa zerbitzuaren kostu errealaren arabera zehazten da, baina, gehienez, honako kantitate hauek ordaintzen dira hilabetero: III. Gradua edo 75 puntutik 100 puntura MBBan (mendekotasun balorazioaren baremoan), 834€; II. Gradua edo 50 puntutik 74 puntura MBBan, 464 euro; I. Gradua edo 25 puntutik 49 puntura MBBan, 300 euro (iturria: GFAko egoitza birtuala 2022/09/22an kontsultatua).

Eskura dauden 39/2006 legeko hiru prestazioetatik, LPPEa da azkenaldian gehien eskatzen dena. Esate baterako, pandemia hasi zen urtean, 7.640 gipuzkoarrek jaso zuten dirulaguntza hori (%78, 80 urtetik gorakoa) eta, Donostiaren kasuan, 2.000 zaintzaile baino gehiago daude kontratatuta laguntza honi esker. Gizarte-ekintzako 2021eko memoriaren arabera,

las situaciones precarias e inquietudes que sufren.

Últimamente se habla mucho, en el ámbito político-institucional, de la necesidad de un nuevo modelo de cuidados, pero no tanto de las medidas para acabar con la precarización laboral que sufren las personas que trabajan como cuidadoras en los hogares.

En concreto, la Ley 39/2006 de atención a la dependencia y promoción de la autonomía regula las ayudas económicas a la contratación de cuidadores profesionales, a través de la denominada Prestación Económica de Asistencia Personal (en adelante PEAP). Mediante la PEAP, las instituciones públicas pretenden contribuir a sufragar los gastos derivados de la contratación de asistentes personales, para la promoción de la autonomía de las personas en situación de dependencia. Es decir, a través de la PEAP, la administración pública ayuda a sufragar los gastos (nómina, cotización, etc.) que supone la contratación de una persona para llevar a cabo labores de cuidado.

El importe se determina en función del coste real del servicio, con el límite superior de las siguientes cantidades mensuales: Grado III o de 75 a 100 puntos en BVD (Baremo de Valoración de la Dependencia), 834€; Grado II o de 50 a 74 puntos en BVD, 464 euros; Grado I o de 25 a 49 puntos en BVD, 300 euros (fuente: sede virtual de la DFG, consultada el 22/09/2022).

De las tres prestaciones reguladas por la Ley 39/2006, la PEAP es la más demandada en los últimos tiempos. Por ejemplo, en el año en que comenzó la pandemia, 7.640 gipuzkoanos y gipuzkoanas recibieron esta subvención (el 78% eran mayores de 80 años). En el caso de San Sebastián, más de 2.000 personas cuidadoras están contratadas gracias a esta ayuda. Según la

urte horretan Donostian eskatutako mendekotasun dirulaguntzetatik %33,78 (379) zaintzaile bat kontratatzeke izan dira eta, guztira, 8.874.779,09 euro inbertitzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak hirian kontratazio horiek egiteko.

Kontuan izanda diru publikoarekin kontratatuta dauden zaintzaileen kopurua esanguratsua dela eta urtetik urtera handituz doala, adierazgarria da, erakunde publikoen aldetik, zaintzaile hauen lan-baldintzen kontrolaren eza. Izan ere, jarraipen eta ikuskaritza egokirik gabe, ez dago jakiterik zaintzaileek lan baldintza egokietan lan egiten duten ala ez. Hain zuzen ere, etxeko zaintzaileekin lan egiten duten elkarte eta sindikatuek etengabe salatzen dute kontratuetako baldintzak ez direla betetzen, ordu gehiagoz lan egiten dutela, atsedean orduak eta egunak ez direla errespetatzen eta abar.

Era berean, egoera irregularrean kontratatuta dauden etxeko langileen errealitatea are gordinagoa da, lan eskubideen parametroetatik guztiz at gelditzen baitira.

2022ko irailean mozioa onartu eta sei hilabete geroago, pozik ikusi genuen Udalaren web orrialdean Berdintasun Sailak etxeko langileentzat aholkularitza zerbitzua eskainiko zuela Emakumeen Etxean.

Batzordean gaiaren inguruan interpelatua, Berdintasuneko delegatuak azaldu digu zerbitzua Sos Arrazakeriarekin hitzartu dela eta orain arte, soilik, Errenterian eskaintzen zen

Memoria de Acción Social de 2021, de las ayudas a la dependencia solicitadas ese año en San Sebastián, el 33,78% (379) tenían por objeto la contratación de una persona cuidadora. La Diputación Foral de Gipuzkoa invirtió 8.874.779,09 euros en estas contrataciones llevadas a cabo en nuestra ciudad.

Teniendo en cuenta que el número de personas cuidadoras contratadas con dinero público es considerable y aumenta año tras año, resulta significativa la falta de control de las condiciones laborales de estas personas por parte de las instituciones públicas. Es evidente que, sin llevar a cabo un seguimiento y una inspección adecuadas, no es posible saber si las personas cuidadoras disfrutaban de unas condiciones laborales apropiadas. De hecho, las asociaciones y sindicatos que trabajan con las personas que se dedican a los cuidados domésticos denuncian constantemente que no se cumplen las condiciones de los contratos, que estas personas trabajan más horas de las debidas, que no se respetan las horas ni los días de descanso, etc.

Por otro lado, la realidad de las personas empleadas del hogar que trabajan en situación irregular es aún más cruda, puesto que están totalmente al margen de los parámetros relativos a los derechos laborales.

Seis meses después de la aprobación de la moción en septiembre de 2022, comprobamos con satisfacción, en la página web del Ayuntamiento, que el Departamento de Igualdad iba a ofrecer un servicio de asesoramiento a las personas empleadas del hogar, y que este servicio se prestaría en la Casa de las Mujeres.

Interpelada en la Comisión acerca de esta cuestión, la delegada de Igualdad nos informó de que el servicio se ha acordado con SOS Racismo y de que será el mismo que hasta

zerbitzu berbera eskainiko dela Donostian. Gogoan izan dezagun, martxoaren 31n, Gipuzkoako Sos Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundeak 2021. zein 2022. urteetan atenditutako emakumeen inguruko datuak eman zituela eta Erreterian atenditutako 320 etxeko langileetatik %35 donostiarrak zirela.

Gure harridurarako, batzordeetatik atera eta gero, Sos Arrazakeriarekin egindako hitzarmena irakurrita ikusi dugu Donostiako Udalak antolatu duen etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzua asteko 2 ordu eta 15 minutura mugatu duela eta, soilik, informatiboa izango dela. Hau da, bi edo hiru emakume atenditzeko aukera egongo da Donostian eta, gainera, ez zaie laguntza juridiko zein judizialik eskainiko.

Hau ikusita, berriro ere, Udal Gobernuak proposatutako etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzua urrun gelditzen da langile hauek behar duten babes eta atentziotik.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Sos Arrazakeriarekin adostutako etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzua etxeko langileak behar bezala atenditzeko orduak kontuan hartuz zabal dezala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Sos Arrazakeriarekin adostutako etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzua integrala izateko baliabideak jar ditzala, honako zerbitzu hauek emateko ordu kopurua handituta:

ahora se prestaba en Erretería, nada más, aunque se preste en San Sebastián. Recordemos que, el 31 de marzo, la ONG SOS Racismo de Gipuzkoa aportó algunos datos sobre las mujeres atendidas en 2021 y en 2022. Uno de estos datos revelaba que, de las 320 empleadas del hogar atendidas en Erretería, 35% eran donostiarras.

Para nuestra sorpresa, tras salir de las comisiones y leer el convenio firmado con SOS Racismo, hemos comprobado que el servicio de asesoramiento a las empleadas del hogar organizado por el Ayuntamiento de San Sebastián se limitará a 2 horas y 15 minutos a la semana, y que, además, será meramente informativo. Es decir, en San Sebastián, se podrá atender a dos o tres mujeres y, además, no se les proporcionará asistencia jurídica ni judicial.

Por tanto, nuevamente, el servicio de asesoramiento a las empleadas del hogar propuesto por el Gobierno Municipal no cubre, en absoluto, el apoyo y la atención que estas personas necesitan.

Por tanto, teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a ampliar el servicio de asesoramiento a las empleadas del hogar, servicio acordado con SOS Racismo, teniendo en cuenta las horas necesarias para atender a estas trabajadoras domésticas.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que ponga los medios para que el servicio de asesoramiento a las personas empleadas del hogar, acordado con SOS Racismo, sea integral, y a que amplíe el número

informazioa; orientazioa; lan-demandak idaztea, aurkeztea eta haien jarraipena; enplegatuarekiko bitartekaritza lana eta beharrezkoak izan daitezkeen beste lan batzuk.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Sos Arrazakeriak Emakumeen Etxean eskainiko duen aholkularitza zerbitzuaren memoria Udaleko Berdintasun Kontseiluan aurke dezala urtean behin.

Donostian, 2023ko apirilaren 27an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

de horas para poder prestar los servicios de información; orientación; redacción, presentación y seguimiento de demandas laborales; intermediación con la persona empleadora, y otras tareas que puedan ser necesarias.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a presentar anualmente, ante el Consejo Municipal de Igualdad, la memoria del servicio de asesoramiento que prestará SOS Racismo en la Casa de las Mujeres.

San Sebastián, 27 de abril de 2023

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Olaia Duarte López, D. Jorge Mota Iglesias, D.^a Ane Oyarbide Ochoa y D.^a Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

1. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

AHO BATEZ.

ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

UNANIMIDAD.

ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

II.2.2. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Arreta Mentaleko Programetan sartzeko Kolektibo Kalteberentzako Laguntza Planari buruzkoa.

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Bixente Mirena Sacristanek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordearen 2023ko apirilaren 24ko bilkuran Ekologiako eta Osasun Publikoko zinegotzi Marisol Garmendia

II.2.2. Moción de control, presentada por el grupo Elkarrekin Donostia, sobre el Plan de Ayudas a Colectivos Vulnerables para acceder a Programas de Atención Mental.

“Bixente Mirena Sacristán, concejal del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la INTERPELACIÓN dirigida a la Concejala Delegada de Ecología y Salud Pública, D^a. Marisol Garmendia Beloqui, tratada en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS

Beloquiri egindako INTERPELAZIOAaren ondorioz.

PERSONAS del día 24-04-2023.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Pandemian izan diren mugikortasun-murrizketen ondorioz, agerian geratu da gaixotasun mentalen errealitatea zein den, eta baita kalteberatasun-egoeran diren biztanleetan zifrek gorantz nola egin duten ere.

Con motivo de las restricciones de movilidad sufridas durante la pandemia, se ha visibilizado la realidad de las enfermedades mentales y cómo sus cifras han ido en aumento en la población en situación de vulnerabilidad.

Horren adibide dira antsietatea, depresioa eta elikadura-nahasmenduak. Kasu horiek, askotan, detektatzen zailak dira, baita pairatzen dutenentzat. Gainera, laguntza edo arreta profesionala eskatzeak tabu izaten jarraitzen du horietako askorentzat.

Ejemplo de ello son los casos de ansiedad, depresión, trastornos alimentarios... que en muchas ocasiones son difíciles de detectar incluso para quienes lo sufren y para quienes el pedir ayuda o atención profesional sigue siendo un tema tabú.

Bizi-esperientzia estresagarriak dira, eta egoera pertsonal zaila eragiten dute. Egoera horrek, tratatzen ez bada, nahasmendu iraunkorrek eragin ditzake eta etorkizuna baldintzatu.

Son experiencias vitales estresantes que, provocan una complicada situación personal, la cual, si no se trata, puede ocasionar trastornos permanentes y condicionar el futuro.

Gazteak, emakumeak eta desgaitasuna duten pertsonak eta bereziki desgaitasun psikosoziala dutenak dira urte honetan osasun mentalean erasan handiena nozitu duten biztanle-taldeetako batzuk.

Jóvenes, mujeres y personas con discapacidad, y en especial con discapacidad psicosocial, son algunos de los grupos de población que han visto más afectada su salud mental durante este año.

Ikerketa Soziologikoen Goi Zentroak (CIS) argitaratutako datuen arabera:

Según datos publicados por el Centro Superior de Investigaciones Sociológicas (C.I.S.):

Egoera zaurgarrian egonik pandemian deprimituta edo itxaropenik gabe sentitu diren pertsonen ehunekoak egoera horretan ez daudenen ehunekoaren ia halako bi da (% 32,7 eta % 17,1, hurrenez hurren). Era berean, nabarmentzekoa da psikofarmakoak kontsumitzeko preskripzioa: % 3,6 egoera zaurgarrian ez daudenen kolektiboetan eta % 9,8 egoera zaurgarrian dauden kolektiboan.

El porcentaje de personas en condiciones vulnerables que se han sentido decaídas, deprimidas o sin esperanza durante la pandemia, casi duplica al de aquellas que no presentan esta condición (32,7% frente a 17,1%). Destaca igualmente la prescripción de consumo de psicofármacos, de un 9,8% frente a un 3,6%.

Gazteak izan dira osasun mentaleko zerbitzuetara gehien jo dutenak; haiek izan dute antsietate-krisi gehien, tristura-sintoma gehien, eta haiek aldatu dute gehien beren ohiko bizimodua, egoera honen ondorioz.

Ilido horretan, CISEk dio, halaber, osasun mentaleko zerbitzuetara jo duten pertsonen erdiak baino gehiago emakumeak direla. Izan ere, hainbat ospitaletan egindako azterlan baten arabera, pandemiaren hilabeteetan, antsietatearen prebalentzia % 33koa izan da emakumeengan, eta depresioarena, % 28koa, eta nabarmentzekoa da antsietatea eta depresioa izateko arrisku-faktore nagusietako bat emakumea izatea dela.

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, ONCE Fundazioak egindako azterlan baten arabera, desgaitasuna duten pertsonen % 50ek adierazi du alarma-egoera hasi zenetik okerrera egin duela haien gogo-aldarteak. Desgaitasuna duten pertsonen % 34k antsiolitikoak edota antidepressiboak kontsumitu ditu konfinamenduan. Desgaitasun psikosoziala duten pertsonen kasuan, zifra % 62,4ra igotzen da.

Salbuespenezko egoera batean gaude, eta premiazkoa da salbuespenezko neurriak hartzea, beste leku batzuetan egin duten bezala.

Arreta Mentaleko Programetan sartzeko Kolektibo Kalteberentzako Laguntza Plan bat sortzeak arrazoi bategatik zein besteagatik tratamendua behar duten pertsonen banakako arreta psikologikoa ematea sustatuko luke.

Gipuzkoako Psikologia Elkargoarekin eta beste zentro espezializatu batzuekin lankidetzan egin liteke hori, psikologia kliniko eta sanitarioko profesionalentzako laguntzak eskainiz.

Los jóvenes son los que han frecuentado más los servicios de salud mental, ataques de ansiedad, síntomas de tristeza... y son los que más han modificado su vida habitual debido a esta situación.

En esta línea, el C.I.S. también señala, que más del doble de las personas que han acudido a los servicios de salud mental son mujeres. De hecho, un estudio realizado en varios centros hospitalarios indica que, en los meses de la pandemia, la prevalencia de la ansiedad en las mujeres ha sido del 33% y la de la depresión, del 28%, y destaca que uno de los principales factores de riesgo de sufrir ansiedad y depresión es ser mujer.

En cuanto a las personas con discapacidad, un estudio de Fundación ONCE, reveló que un 50% de las personas con discapacidad señala que su estado de ánimo ha empeorado tras el estado de alarma. Un 34% de las personas con discapacidad recurrió a la toma de ansiolíticos y/o antidepressivos durante el confinamiento. Y en el caso de las personas con discapacidad psicosocial, la cifra se eleva al 62,4%.

Nos encontramos en una situación excepcional y urge adoptar medidas de carácter excepcional, como ya lo han hecho en otros lugares.

La creación de un Plan Especial de Ayudas a Colectivos Vulnerables para acceder a Programas de Atención Mental, fomentaría la atención psicológica individualizada a las personas que, por diferentes causas, precisen de un tratamiento.

Esto podría realizarse en colaboración con el Colegio de Psicología de Gipuzkoa y otros centros especializados, ofreciendo ayudas para acudir a profesionales de la psicología clínica y sanitaria.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por ello presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Arreta Mentaleko Programetan sartzeko Kolektibo Kalteberentzako Laguntza Plan bat sortzea.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a la creación de un Plan Especial de Ayudas a Colectivos Vulnerables para acceder a Programas de Atención Mental.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren lankidetzahitzarmenak ezar ditzala Osasun Mentaleko Programetan inplikaturako erakundeekin, Plan Berezi hau antolatu ahal izateko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a establecer los convenios de colaboración necesarios con las entidades implicadas en Programas de Salud Mental para poder organizar este Plan Especial .

Donostia, 2023ko maiatzaren 4a

Donostia, 4 de Mayo de 2023

Izpta.: Bixente Mirena Sacristan Esteban
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia".

Fdo.: Bixente Mirena Sacristán Esteban
Concejal del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Bixente Mirena Sacristan Esteban jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Cristina Lage Manich andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Bixente Mirena Sacristán Esteban, D. Borja Corominas Fisas, D.^a Cristina Lagé Manich y D.^a Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

AHO BATEZ.

**ABSTENTZIOAK: 2 - (1) EH BILDU, (1)
ELKARREKIN DONOSTIA, PLENO
ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

UNANIMIDAD.

**ABSTENCIONES: 2 – (1) EH BILDU, (1)
ELKARREKIN DONOSTIA, POR HABERSE
AUSENTADO DE LA SALA.**

II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Ekialdeko Barrutiak behar dituen aldaketei buruzkoa.

II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los cambios que necesita el Distrito Este.

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk mozio hau aurkezten du Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2023ko martxoaren 24an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioan dago.

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción se basa en la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales, el 24 de marzo de 2023.

JUSTIFIKAZIOA

Amaitzeaz den agintaldi honen hasieran, 2019ko urrian, Politika Orokorrari buruzko Ohiz kanpoko Udalbatzarrean, EH Bilduk proposatutako ebazpenak eskatu zion Udal Gobernuari Ekialdeko Barrutiaren jardura nabarmen indartzeko, parte hartze eta ekitate irizpideak oinarri hartuta, egitura horren garapen eta eraginkortasun osoa lortzeko, lehenbailehen; ebazpena aurrera atera zen EH BILDU, PSE-EE eta ELKARREKIN DONOSTIA taldeen aldekotasunarekin.

Ekialdeko Barrutia eratzeak esperantza berri bat piztu zuen bertako bizilagunengan, argi baitugu egokiago gobernatuko dugula geure burua geure beharrei eta arazoei irtenbideak bertatik bertara emanda. Baina ez da lortu Barrutiak garapen azkar eta eraginkor bat izaterik gabezia nabarmenak baititu: egungo funtzionamendua ez da operatiboa izaten ari, batetik, alkateak uko egin diolako eskuduntzak delegatzeari (erabakiak hartzeko ahalmena), horretarako aukera duen arren, Udaleko Idazkari Nagusiak 2022ko urtarrilaren 17ko txostenean adierazi bezala; bestetik, Udaleko organo zentralek urruntasun handia erakutsi dutelako Barrutiarekiko, hainbat arduradunek, baita alkateak ere, aitortu bezala; eta ezin duelako bere jardura zuzenean kudeatu, ez baitauka langilerik, administrazio unitatea duen arren. Horien guztien ondorioz, abiatu zenetik ez da osorik exekutatu Barrutiaren aurrekontu bat bera ere.

JUSTIFICACIÓN

En la resolución propuesta por EH Bildu en el Pleno Extraordinario de Política General, en octubre de 2019, al inicio de este mandato que ahora está a punto de finalizar, se solicitaba al Gobierno Municipal que reforzara de forma significativa la actividad del Distrito Este, en base a criterios de participación y equidad, con el fin de lograr, lo antes posible, el pleno desarrollo y eficacia de esta estructura. La resolución fue aprobada con los votos a favor de los grupos EH BILDU, PSE-EE y ELKARREKIN DONOSTIA.

